





## WALTER BENJAMIN

### Walter Benjamin. Konstelazioak.

Walter Benjamin da hiri modernoan eta, hortaz, gure garaian gertatutako eraldaketarik bereizgarrienen interpretatzaile pribilegiatua: hiriko guneen merkaturatzea, kontsumo objektuak fetitxe bihurtzea, esperientzia tradizionalaren krisia... Konstelazioak obrak Benjaminen lanaren gogoeta nagusietako batzuen berri ematen digu, irudien bidez. Ikus-entzunezko zenbait aipu dira, filosofoak berak iradokitako metodologia baten bitartez antolatutak. Sei kapitulutan banatutako ikus-entzunezko konposizio bat da, eta kapitulu bakoitzean, filosofoaren lanaren kontzeptu nagusiak adierazten ditu.

Konposizio horrez gain, Walter Benjamin atlasa ere ikus daiteke. Tresna informatiko bat da atlas hori, Benjaminen askotariko gaietako eta jatorrietako testuen artean nabigatzeko aukera ematen duena, hiperesteken bidez. Halaber, Entzuketara ereduak ere daude gune horretan. Benjaminek 1929 eta 1933 bitartean Alemaniako Hego-mendebaldeko Irratiarentzat egindako gidioak berreskuratu dira, eta gaztelaniazko alokuzio berriak gehitu dira.

### Shanghai World Expo 2010.


Shanghai 2010eko Erakusketa Unibertsalean, Bilbok bere zaharberritzea aurkeztu zuen Bilbao Guggenheim ++ Plus Project of Leadership in Urban Strategy proiektuaren bidez. Orain, Argi Larruzala, Esther Pizarrok, Artemio Fochs-ek eta Jesus Maria Lazkanok egindako argi eskultura, Bilbora itzuli da, bertakoen zein kanpokoen gozameneko. Manta moduko bat da instalazio hori, sekulakoa, eta haren gainean, Bilboko hiri ehuna hedatzen da, hiriko topografia aberatsa islatuz, haren barruan gorputz bat ezkutuan balego bezala.



## BILBAO GUGGENHEIM++ SHANGHAI WORLD EXPO 2010

TRANS/FORMAZIOAK:  
HIRIA: ESPAZIOAK ETA DENBORAK

BILBOK EKIALDEAN BERE ZAHARBERRITZEA ERAKUSTEKO ERABILITAKO ARGI ESKULTURAK HASIERA EMATEN DIO TRANS/FORMAZIOAK-EN ERAKUSKETARI. ESKULTURA HORREKIN BATERA, WALTER BENJAMIN HIRIAREN BEHATZAILE NEKAEZINAREN HIRITARTASUNARI BURUZKO KONSTELAZIO TEORIKOAK DAUDE, BAITA YIN XIUNZHEN- EK GLOBALIZAZIOAREN ONDORIOEI BURUZ DITUEN ARTE IKUSPEGI BITXIA ERE. ERAKUSKETA ELKARRERAGILEA DA, ETA HARTAN, BISITARIEK BEREN IRUDIMENEZKO HIRIA ERAIKI AHAL IZANGO DUTE, BEREN DESIOAK ADIERAZIZ.




1

2

4

3

## IMAJINATU BILBAO



### Imajinatu Bilbao.

Erakusketa bisitatzen duten pertsonen irudikatutako eta desiratutako hiria eraikitzea da Imajinatu Bilbao instalazioaren helburua. Erakusketara hurbiltzen direnek bere proposamen, desio eta hausnarketan bidez parte hartu ahal izango dute. Jendeak parte hartzen duen heinean, gunea handitu eta eraldatu egiten da, egunez egun, ordurik ordura. Horren emaitza hiri maketa bat izango da, denen ekarpenak barne hartzen dituzten bloke bizigarri osatua.

## YIN YIHUZEN COMMUNE



### Yin Xiuzhen. Commune.

Yin Xiuzhen artistaren proposamena da Commune. Lan horren bidez, tokiko sormen prozesuak nolakoak diren eta prozesu horiek mundu mailan zer eragin duten ulertarazi nahi du artistak. Txinako ehun lantegi handi bat da obra, eta lantegi horren barruan, hamarnaka piezak eta zenbait josteta postuk egitura handi bat osatzen dute.

Xiuzhenek abangoardiako arte instalazioak sortzen ditu, egunean-eguneango gauzak erakusteko. Produktzioaren deslokalizazioa eta kolore, forma eta testuren globalizazioa islatzeko erabiltzen du artea. Haren iritzi, komunikazio bidea da artea, norberak eraldaketa globalekin lotuta dituen esperientzien alderdiak agerian jartze aldera.

## ARETOKO GIDALIBURUA

TRANS/FORMAZIOAK:  
HIRIA ESPAZIOAK ETA DENBORAK



OTSAILAREN 22TIK MAIATZAREN 1ERA  
ERAKUSKETA ARETOA. 2 SOLAIRUA  
ASTEARTETIK OSTIRALERA: 10:00ETATIK 20:00ETARA /  
ASTELEHENETAN ITXITA, APIRILAREN 18AN ETA 25EAN

IZAN EZIK SARRERA DOAN.  
JASO TIKETA INFOPUNTUAN EDO TICKET BOXEAN.

Lankidea:



Babesleak:



TRANS/FORMAZIOAK  
HIRIA: ESPAZIOAK ETA DENBORAK  
OTSAILAK 22 / MAIATZAK 01

hó  
Alhóndiga Bilbao

B

